




2009/09/17(e)ko prentsa-oharra

ERAIKUNTZARI ETA ETXEBIZITZARI BURUZKO ESTATISTIKA 2009ko 1. hiruhilekoa

Vitoria-Gasteizek, 2009ko lehen hiruhilekoan oin berriko 1.021 etxebizitza eraikitzeo aurreikuspenarekin, sektorearen erorketa saihestu du

Arabak 2009ko lehen hiruhilekoan EAE osoan aurreikusitako oin berriko etxebizitza guztien % 47,7 metatu du

Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Sailak kudeatutako Eraikuntzari eta Etxebizitzari buruzko Estatistikak adierazten duenez, 2009ko lehen hiruhilekoan oin berriko 2.259 etxebizitza eraikitzea aurreikusi da, aurreko urteko aldi berean baino % 4,2 gutxiago, eta 2008ko azken hiruhilekoan baino % 13,5 gutxiago.



Iturria: Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila. Eraikuntzari eta Etxebizitzari buruzko Estatistika



Arabak Autonomia Erkidego osoan eraikitzeke aurreikusi diren oin berriko etxebizitza guztien ia erdia metatu du (% 47,7), eta haren atzetik Gipuzkoa da nagusi (% 28,7), eta Bizkaia azkena (% 23,6).

Arabako Lautadak metatu du Araban aurreikusitako oin berriko etxebizitzaren % 93,7; Bilbo handiak Bizkaiko etxebizitzaren % 47,9, eta Donostiako eskualdeak Gipuzkoako etxebizitzaren % 62,2.

Vitoria-Gasteizek oin berriko 1.021 etxebizitza eraikitzea aurreikusi du, Autonomia Erkidego osoan aurreikusitakoaren % 45,2 eta Araban aurreikusitakoaren % 94,8; haren atzetik daude Donostia 315 etxebizitzekin (Erkidegoko % 13,9), Abadiño 154 etxebizitzekin (% 6,8), Zarautz 150 etxebizitzekin (% 6,6), eta Basauri 136 etxebizitzekin (% 6). EAEko 251 udalerrien artetik, soilik 51 udalerritan –bostetik bat– aurreikusi da etxebizitza berriak eraikitzea.

Etxebizitzak birgaitzeko lanek ere eraikuntzaren sektorearen moteltzea pairatu dute: 2008ko lehen hiruhilekoan 288 etxebizitza birgaitzea aurreikusi zen, eta 2009. urteko aldi berean 93 aurreikusi ziren bakarrik.

EAEko udaletxeek emandako obra handiko lizentzien kopurua 2009ko lehen hiruhilekoan 2008ko aldi berean baino % 42,4 txikiagoa da

Udaletxeek baimentzen dituzten obra handiko lizentzien kopurua eraikuntza ez publikoaren sektorearen egoeraren arabera adierazle gisa erabili ohi da, eta 2008ko lehen hiruhilekoan baino % 42,4 txikiagoa izan da; izan ere, 2009ko lehen hiru hilabeteetan emandako lizentziak 521 izan ziren.

Hirutik bi baino pixka bat gehiago (% 67,9) birgaitze-lanetarako lizentziei dagokie, % 30 oin berriko eraikinen eraikuntza-lanei dagokie, eta % 2 baino pixka bat gehiago eraispent-lanei soilik (guztira 11, eta 2008ko lehen hiruhilekoan 33 ziren).

Arabian eta Bizkaian metatutako lizentzien kopuruak antzekoak dira: 198 eta 197, hurrenez hurren; hala ere, Arabaren kasuan, oin berriko eraikuntza-lanek garrantzi handiagoa dute (% 28,8) Bizkaian baino (% 23,4). Gipuzkoak Autonomia Erkidego osoko lizentzia guztien laurtekoa bat baimendu du (126).

Eraikuntzaren gelditzea Bizkaian nabarmendu da, urtebeteko aldiaren obra handiko lizentzien kopurua % 56,9 jaitsi baita

2008ko lehen hiruhilekoarekin alderatuta, Bizkaiak lizentzien guztizko kopuruaren % 56,9 galdu du, Gipuzkoak % 35,1 eta Arabak % 22.

Arabako Lautadak Arabako lizentzien % 70,7 metatu du; Bizkaiari dagokionez, Bilbo handiak antzeko kopurua metatu du (% 69), eta Donostiako eskualdeak, aldiz, Gipuzkoako guztizko kopuruaren % 38,8 metatu du bakarrik.



ETXEBIZITZA, HERRI LAN
ETA GARRAIO SAILA
Zerbitzu Zuzendaritza
Estatistikarako Organo Berezia

DEPARTAMENTO DE VIVIENDA,
OBRAS PÚBLICAS Y TRANSPORTES
Dirección de Servicios
Órgano Estadístico Específico

ESTADÍSTICA DE EDIFICACIÓN Y VIVIENDA EN LA C.A. DE EUSKADI		1er trimestre de 2009		Variación sobre trimestre anterior		Variación sobre mismo trimestre del año anterior	
LICENCIAS DE OBRA MAYOR		Número	%	Número	Var %	Número	Var %
C.A. de Euskadi	Total	521	100,0	-127	-19,6	-384	-42,4
	Nueva planta	156	29,9	-60	-27,8	-126	-44,7
	Rehabilitación	354	67,9	-63	-15,1	-236	-40,0
	Demolición	11	2,1	-4	-26,7	-22	-66,7
Araba / Álava	Total	198	100,0	0	0,0	-56	-22,0
	Nueva planta	57	28,8	-5	-8,1	-41	-41,8
	Rehabilitación	139	70,2	8	6,1	-12	-7,9
	Demolición	2	1,0	-3	-60,0	-3	-60,0
Bizkaia	Total	197	100,0	-98	-33,2	-260	-56,9
	Nueva planta	46	23,4	-34	-42,5	-76	-62,3
	Rehabilitación	146	74,1	-65	-30,8	-171	-53,9
	Demolición	5	2,5	1	25,0	-13	-72,2
Gipuzkoa	Total	126	100,0	-29	-18,7	-68	-35,1
	Nueva planta	53	42,1	-21	-28,4	-9	-14,5
	Rehabilitación	69	54,8	-6	-8,0	-53	-43,4
	Demolición	4	3,2	-2	-33,3	-6	-60,0
NÚMERO DE VIVIENDAS PREVISTAS							
C.A. de Euskadi	Total	2.352	100,0	-407	-14,8	-294	-11,1
	Nueva planta	2.259	96,0	-352	-13,5	-99	-4,2
	Rehabilitación	93	4,0	-55	-37,2	-195	-67,7
Araba/Álava	Total	1.099	100,0	456	70,9	215	24,3
	Nueva planta	1.077	98,0	459	74,3	239	28,5
	Rehabilitación	22	2,0	-3	-12,0	-24	-52,2
Bizkaia	Total	570	100,0	-790	-58,1	-624	-52,3
	Nueva planta	534	93,7	-723	-57,5	-564	-51,4
	Rehabilitación	36	6,3	-67	-65,0	-60	-62,5
Gipuzkoa	Total	683	100,0	-73	-9,7	115	20,2
	Nueva planta	648	94,9	-88	-12,0	226	53,6
	Rehabilitación	35	5,1	15	75,0	-111	-76,0

Iturria: Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila. Eraikuntzari eta Etxebizitzari buruzko Estatistika

Informazio gehiago nahi izanez gero:

Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila. Zerbitzu Zuzendaritza. Estatistikarako Organo Berezia
Donostia kalea, 1 – 01010 Vitoria-Gasteiz

Harremanetarako: Edurne Domingorena

Telf. zk.:+34-945-01 97 12 Fax zk.:+34-945-01 64 07

Prentsa-oharrak Interneten: <http://www.gizaetxe.ejgv.euskadi.net/r40-2190/es/>

WEB HELBIDEA: <http://www.gizaetxe.ejgv.euskadi.net/r40-2190/es/>